



Gizarte-diagnostikoa egiteko eta bazterkeria ebaluatzeko baliabide bateratuak

TERMINOLOGIA ETA IRIZPIDEAK

Ekonomia-, lan- eta egoitza-arloa

BAZTERKERIA EBALUATZEKO ZENBAKIZKO BALIOAK

Adierazle guztietan, balio berak eman behar zaizkie hiru erantzun-aukerei: 0, 1 eta 2, hurrenez hurren, aukera horien ordenari jarraituz.

1. ALDERDIA.- EKONOMIA-EGOERA.

DIRU-SARRERAK

1.1 adierazlea.- Gizabanakoaren diru-sarrerak. Ea gizabanakoak berak ekonomia-baliabideak dituen ala ez.

Denbora-irizpidea: duela 6 hilabete hasi eta ebaluazio hau egin arteko aldia.

Diru-sarrera erregularrak.

Ekonomia-baliabideak ditu. Ekonomia-baliabide horiek hainbat iturritatik eskuratzen ditu, aldizka-aldizka eta epe jakin batean. Esate baterako: soldata, gizarte-babeserako sistemen laguntza ekonomikoak, errentak edo/eta banku-interesak.

Diru-sarrera irregularrak edo noizbehinkakoak.

Noizbehinka eta salbuespen gisa izaten ditu diru-sarrerak. Ez da ohiko egoera; ez du esan nahi lehenago diru-sarrera erregularrak izan ez dituenik edo izango ez dituenik.

Diru-sarrerarik ez.

Ez du inolako diru-sarrerarik.

1.1.a. adierazlea.- Bizikidetzaren diru-sarrerak. Ea gizabanakoaren bizikidetzaren diru-sarrerak ekonomia-baliabideak dituen ala ez.

Denbora-irizpidea: duela 6 hilabete hasi eta ebaluazio hau egin arteko aldia.

Diru-sarrera erregularrak.

Ekonomia-baliabideak dituzte. Ekonomia-baliabide horiek hainbat iturritatik eskuratzen dituzte, aldizka-aldizka eta epe jakin batean. Esate baterako: soldata, gizarte-babeserako sistemen laguntza ekonomikoak, errentak edo/eta banku-interesak.

Diru-sarrera irregularrak edo noizbehinkakoak.

Noizbehinka eta salbuespen gisa izaten dituzte diru-sarrerak. Ez da ohiko egoera; ez du esan nahi lehenago diru-sarrera erregularrak izan ez dituztenik edo izango ez dituztenik.

Diru-sarrerarik ez.

Ez dute inolako diru-sarrerarik.

1.2. adierazlea.- Gizabanakoaren diru-sarrearen zenbatekoa nahikoa den ala ez. Ea gizabanakoak berak ekonomia-baliabide nahikoa duen, bizitza autonomoa, duina eta kalitatezkoa izateko. Ikus taulak, hurrengo adierazlean.

Denbora-irizpidea: Ebaluazioa egiten den unean bertan.

Nahikoa.

Diru-sarrera nahikoa du, oinarrizko premiak asetzeko. Urteko diru-sarrerak Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren (per capita) errenta gordinaren % 50 baino handiagoak dira.

Eskasa.

Ez du premiak asetzeko adina diru-sarrera: ezin ditu oinarrizko premia guztiak ordaindu. Urteko diru-sarrerak etxebizitzaren errenta gordinaren % 25aren eta % 50aren artean daude.

□ **Oso eskasa.**

Urteko diru-sarrerak ez dira nahikoa premiak asetzeko. Ez ditu oinarrizko zerbitzuak eta ondasunak. Urteko diru-sarrerak etxebizitzaren errenta gordinaren % 25 baino baxuagoak dira.

1.2.a. adierazlea.- Bizikidetzataldearen diru-sarrearen zenbatekoa nahikoa den ala ez. Ea gizabanakoaren bizikidetzataldeak ekonomia-baliabide nahikoa duen, kideetako bakoitzak edo bizikidetzataldeak bitzita autonomoa, duina eta kalitatezkoa izateko.

Denbora-irizpidea: Ebaluazioa egiten den unean bertan.

Irizpide orokorra: Bizikidetzata-unitateko kide guztien diru-sarrearen batura alderatu behar dugu unitatearen tamainaren arabera eginiko estandarizazioarekin, koefiziente hauen arabera:

Kide-kopurua	Koefizientea
1	1,0
2	1,3
3	1,4
4 edo gehiago	1,5

urteko	Kide 1	2 kide	3 kide	4 edo gehiago
% 100	20.416,00	26.540,80	28.582,40	30.624,00
% 50	10.208,00	13.270,40	14.291,20	15.312,00
% 25	5.104,00	6.635,20	7.145,60	7.656,00

hileko	Kide 1	2 kide	3 kide	4 edo gehiago
% 100	1.701,33	2.211,73	2.381,87	2.552,00
% 50	850,67	1.105,87	1.190,93	1.276,00
% 25	425,33	552,93	595,47	638,00

Diru-sarrerak nahikoak diren ebaluatu behar da, gizabanako bakar batekin egin dugun bezala. Dena den, taulan adierazten denez, alderatu beharreko zenbatekoak bizikidetzata-unitatearen tamainaren arabera aldatzen dira:

□ **Nahikoa.**

Bizikidetzata-unitateak nahikoa diru-sarrera du, oinarrizko premiak asetzeko. Urteko diru-sarrerak Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren (per capita) errenta gordinaren % 50 baino handiagoak dira (errenta gordina bider bizikidetzata-unitateari dagokion koefizientea egin behar dugu).

□ **Eskasa.**

Ez du premiak asetzeko adina diru-sarrera: ezin ditu oinarrizko premia guztiak ordaindu. Urteko diru-sarrerak per capita errenta gordinaren % 25aren eta % 50aren artean daude (koefizientearen arabera).

□ **Oso eskasa.**

Urteko diru-sarrerak ez dira nahikoa premiak asetzeko. Ez ditu oinarrizko zerbitzuak eta ondasunak. Urteko diru-sarrerak per capita errenta gordinaren % 25 baino baxuagoak dira (koefizientearen arabera).

1.3. adierazlea.- Diru-sarrearen iturria. Diru-sarrerak nondik eskuratzen dituen jakitea da xedea, bai eta diru-sarrera horiek gizarte-babesarekin lotuta dauden ala ez jakitea ere. Kontuan hartu gabe zenbatekoa, eta diru-sarrera horiek lanaren

bidez eskuratu dituen edo/eta gizarte-babeserako ekarpenezko sistema publikoetatik eta pribatuetatik eskuratu dituen.

Denbora-irizpidea: Ebaluazioa egiten den unean bertan.

□ Gizabanakoak berak eskuratutako diru-sarrerak, hauetakoren bat dela bide:

Lanaren bidez edo gizarte-babeserako ekarpenezko sistemen bidez eskuratutako diru-sarrerak ditu. Jakintzat ematen da gizarte-babesa duela.

□ Lan egonkorra.

Bere edo besteren kontura eginiko lanaren bidez eskuratzen ditu diru-sarrerak. Lana egonkorra da. Ez du lan hori galtzeko arriskurik.

□ Lan ezegonkorra, aldi baterakoa edo noizbehinkakoa.

Bere edo besteren kontura eginiko lan ezegonkor baten bidez eskuratzen ditu diru-sarrerak. Lan hori galdu egingo du.

□ Langabezia-prestazioa.

Langileak eta haien onuradunak langabezia-egoeran babestea xede duten Gizarte Segurantzaren kotizazio mailako prestazioak.

□ Pentsioduna: kotizaziopeko pentsioa.

Gizarte Segurantzaren ekarpenezko prestazioen bidez eskuratzen ditu diru-sarrerak. Prestazio horien xedea da langileak eta haien onuradunak babestea, egoera hauetakoren batean: erretiroa, lan-ezintasuna, alarguntza eta zurtasuna, adingabeak edo elbarriak kargura izatea.

□ Pentsioduna: Zahartzaro eta Ezintasunerako Nahitaezko Asegurua (ZENA).

□ Pentsioduna: mutua pribatu baten pentsioa.

□ Gizarte Segurantzaren beste prestazio batzuk.

Seme-alabak kargura izateagatik emandako familia-prestazioa, aldi baterako ezintasuna izateagatik emandako prestazioa, etab.

□ Ondarea; ondare-etekinak.

Diru-sarreraren iturria: kontu-korrontearen etekinak, bonuak, akzioak, errentak, errentak, alokairuak, apopilotza, interesak, epe finkoa...

□ Bestelakoak: banantze-pentsioa, mantenu-pentsioa.

Diru-sarreraren iturria: banantzeko edo dibortziazeko epai judizial baten bidez, konpentsazio-pentsio bat jasotzeko eskubidea duela aitortu izana.

□ Ezohiko diru-sarrerak: herentziak, kapitalizazioak, atzerakinak, sariak.

□ Gizarte-babeserako sistema publikoen baitako diru-sarrerak.

Gizarte-babeserako sistemetatik soilik eskuratzen ditu diru-sarrerak. Sistema horien laguntza jasotzeko, ez da beharrezkoa alde aurretik kotizatzea, bai, ordea, eskakizun batzuk betetzea.

□ Erakundeen laguntzak.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen du, edo laneko sarrerak osatzeko errenta osagarria, etxebizitzako prestazio osagarria, gizarte-larrialdietarako laguntzak edo mendetasunari buruzko legearen prestazio ekonomikoak.

□ Langabezia-sorospena.

Langabeak babesteko laguntza. Laguntza ekonomikoa ematen da, eta osasun-laguntzari, familia-babesari eta, hala badagokio, erretiroari dagozkien prestazioen kotizazioa Gizarte Segurantzari ordaintzen.

□ Kotizazio gabeko asistentzia-pentsioak.

Hainbat arrazoi direla medio, ekarpenezko pentsio bat jasotzeko adina kotizatu ez duten pertsonen egoera. Laguntza ekonomikoak dira, eta aldizka-aldizka ematen dira. Diru-sarreraren iturria: gizabanakoak, zaharra denez edo gaixo dagoenez, ekarpenezko ez diren erretiro- edo ezintasun-

pentsioak jasotzen ditu, edo gutxieneko sarrerak bermatzeko sorospena (MIGILE) edo gizarte-ongizatearen fondoak.

□ **Bestelakoak:** diru-laguntza arruntak.

□ **Lanbide baztertuetakako diru-sarrerak.**

Lanbide baztertutzat hartzen dira antolamendu berezia duten lanbideak edo gizarte-babesik ez dutenak.

□ **Ezkatuko ekonomia.**

Diru-sarreraren iturria: kontraturik gabe eta zerga-eskakizunak bete gabe, bere edo besteren kontura egindako lanak. Esate baterako: kartoi- eta txatar-bilketa eta legez kanpoko kalez kaleko salmenta.

□ **Jarduera marjinalak eta legez kanpokoak.**

Lanbide baztertuak —prostituzioa, eskale aritzea— edo legez kanpokoak —delitugintza—.

1.4. adierazlea.- Diru-sarreraren iturria: lehen mailako sarearen —senitartekoen zein besteren— laguntza ekonomikoa eta materiala.

Diru-sarreraren iturria, guztiz edo hein batean, senideek edo harreman-sare informalek emandako laguntza da.

Denbora-irizpidea: Ebaluazioa egiten den unean bertan.

□ **Lehen mailako sarearen laguntzarekin osatzen ditu diru-sarrerak.**

Eskuratzen dituen diru-sarrerak —edonolakoak direla ere— senitartekoen edo/eta lagunen diru-sarrerekin osatzen ditu.

□ **Lehen mailako sarearen baitan daude haren diru-sarrerak.**

Senitartekoen edo/eta lagunen laguntza salbu, ez du bestelako diru-sarrerarik.

□ **Ez du lehen mailako sarearen laguntzarik.**

GASTUAK

Ea, bizikidetzaren unitatearen sarrerak kontuan hartuta, oinarritzko ondasunetan eta zerbitzuetan eginiko gastuak ordaintzeko zailtasunak dituzten ala ez.

1.5. adierazlea.- Etxebizitzako edo ostatalekuko gastuak (gizabanakoa eta haren bizikidetzaren taldea).

Zehazki, gastu hauek:

- o Alokairua, edo etxebizitza edo ostatalekua erosteko hartutako hipoteka-mailleguen interesak eta amortizazioa.
- o Etxebizitzaren edo ostatalekuaren mantenuarekin eta oinarritzko zerbitzuekin lotutakoak (asegurua, komunitateko kuotak eta zerga bereziak, ura, argia, berogailua, konponketak eta birjarpenak).
- o Etxebizitzan eginiko egokitzapen teknikoak.
- o Etxebizitzaren irisgarritasuna: gune komunetan; igogailua, arrapala.
- o Arkitektura-oztopoak kentzea.

Denbora-irizpidea: duela 6 hilabete hasi eta ebaluazio hau egin arteko aldia.

- Bere etxebizitza partikularreko ostatu-gastuak ordain ditzake.**
Gizabanakoak edo bizikidetzaren taldeak ekonomia-baliabide nahikoa du gastu horiek ordaintzeko.
- Zailtasunak ditu bere etxebizitza partikularreko ostatu-gastuak ordaintzeko:**
Gizabanakoak edo bizikidetzaren taldeak, noiz edo noiz, behar baino ekonomia-baliabide gutxiago izaten ditu gastu horiek ordaintzeko.
 - Ordainketa-atzerapenak.**
Alokairua, hipoteka, komunitateko kuotak, hornigaien ordainagiriak...
 - Kaleratzeko, bahitzeko eta hornidurak mozteko prozesuak abian daude.**
Zerbitzu jakin batzuen hornidura eten dute, etxea bahitzeko arriskuan dago edo kaleratuak izateko arriskuan daude, ez ordaintzeagatik.
- Ezin ditu ordaindu etxebizitza- eta ostatu-gastuak. Balizko egoerak:**
Ez du ekonomia-baliabiderik gastuak ordaintzeko.
 - Etxebizitza galdu du, kaleratu egin dutelako edo etxebizitza bahitu dutelako.
 - Erakundez kanpoko ostatu eta etxebizitza kolektiboetara jo du.
 - Ezin ditu ordaindu erakundez kanpoko etxebizitza kolektiboko ostatu-gastuak.

1.5.a. adierazlea. Etxebizitzako edo ostatalekuko gastuen zenbatekoa.

Hipoteka-maillegu bat izan daiteke edo/eta mailegu pertsonal bat, edo alokairua (alokairuaren errenta, ostatu hileko ordainketa).

Etxebizitzako gastuak ez dira egokitzat joko, baldin eta bizikidetzaren unitatearen sarreraren % 30 baino gehiago horrelako gastuak ordaintzeko erabiltzen bada. Gastuen eta sarreraren egokitasun eza handia edo oso handia izan daiteke.

- Egokia.**
Urteko zenbatekoa bizikidetzaren unitatearen urteko sarreraren % 30 baino baxuagoa da.
- Handia.**

Urteko zenbatekoa bizikidetza-unitatearen urteko sarrerren % 30aren eta % 50aren artean dago.

□ **Oso handia.**

Urteko zenbatekoa bizikidetza-unitatearen urteko sarrerren % 50 baino handiagoa da.

1.6. adierazlea.- Beste oinarrizko ondasun eta zerbitzu batzuetan eginiko gastuak.

Ikus oinarrizko gastuen zerrenda, behean. Diagnostikorako eredia egiteko prozesuan parte hartu duten profesionalen ekarpenei esker egin dugu zerrenda hori. Kontuan hartu behar dugu, bakoitzaren esperientzia profesionala dela eta, batzuen iritziz oinarrizkoak diren gastuak beste batzuen iritziz ez direla oinarrizkoak. Batez ere, hirugarren multzoko gastuetako batzuekin gertatuko da hori, ziur asko. Horren adibide dugu telebista: telebistarik gabe lasai asko bizi gaitzkeen arren, bakarrik bizi diren adinekoentzat ezinbestekoa izan daiteke.

Multzo horretan bertan, kontuan har bedi senitartekoei laguntzeko gastuei buruz parentesi artean jasotakoa; hau da, senitartekoei laguntza ematen dieten pertsonak beren premiak ase dituztenean soilik hartu behar dira laguntza horien gastuak oinarrizkotzat.

Horrenbestez, zerrenda horren xedea ez da sailkapen aldaezin bat egitea, baizik eta mota orotako aintzatespen profesionalak egitea. Gerta daiteke profesional batek kasu eta une jakin batean telebista oinarrizko gastutzat ez jotzea —are gutxiago telebista handia eta azken modelokoa bada— eta beste une batean, ebaluatzen ari den pertsonaren egoera aldatu delako, telebista oinarrizko gastutzat jotzea.

Ostatalekuko eta etxebizitzako oinarrizko gastuak:

- Alokairua, edo etxebizitza edo ostatalekua erosteko hartutako kredituen (hipoteka-maileguaren) interesak eta amortizazioa.
- Etxebizitzaren edo ostatalekuaren mantenuarekin eta oinarrizko zerbitzuekin lotutakoak (asegurua, komunitateko kuotak eta zerga bereziak, ura, argia, berogailua, konponketak eta birjarpenak).
- Etxeko egokitzapen teknikoak.
- Etxebizitzaren irisgarritasuna: guneko komunetan; igogailua, arrapala.
- Arkitektura-oztopoak kentzea eta etxebizitza moldatzea, etxean zehar errazago ibiltzeko.

Oinarrizko gastuak: janaria, arropa, higiena eta norberaren gastuak:

- Janaria.
- Eskolako jantokia.
- Arropa eta oinetakoak.
- Laguntza-produktuak: eguneroko bizitzako jarduerak egiteko edo/eta desgaituen irisgarritasuna bermatzeko laguntza teknikoak edo tresnak.
- Osasun-produktuak (betaurrekoak, protesiak, audiofonoak...), zaintza medikoak, sendagaiak (% 40 estalita edo estali gabeak), tratamendu espezifikokoak edo alternatiboak.
- Agiriak eskuratzeko izapideekin lotutakoak (NAN, kopia egiaztatuak, itzulpenak).
- Familia-betebeharrekin eta -laguntzarekin lotutakoak.
 - Senitartekoei laguntza ekonomikoa eta materiala emateko gastuak (beren gastuak ordainduta dituztenean).
 - Konpentsazio-pentsioen gastuak.

- Etxetik kanpo bizi diren seme-alaba adingabeei mantenua emateko gastuak.
- Jatorrizko herrialdean bizi diren senitartekoei bidalitako laguntza (oinarrizko gastutzat joko da, baldin eta, bizi den herrialdean, oinarrizko ondasun eta zerbitzu guztiak baditu).

Lan-merkatuan sartzearekin edo bertan gelditzearekin, ikastearekin, komunikatzearekin, harremanekin eta gizarte-bizitzarekin, gizarteratzearekin eta bakartze soziala saihesteko ekintzekin lotutako gastuak:

- Hezkuntza, prestakuntza.
- Garraioa. Lanera, ikastera, lanbide-heziketako zentrora joateko lekualdatzeak eta joan-etorriak.
- Familia eta lana uztartzearen ondorioz sortutakoak.
- Telefonoa.
- Telebista.
- Internet.
- Aisialdia: kirola, ibilaldiak.
- Laguntzaile pertsonala.
- Edaria — kafea: gizarte-harremanetarako eremuetan egoteko gutxieneko kontsumoa.
- Tabakoa (osasun mentala).
- Gizarte Segurantzako zorrak.
- Lana aurkitzeko eginiko emigrazio-bidaia ordaintzeko zorrak.

Urtero-urteroko ezohiko oinarrizko ondareetan eginiko gastuak:

- Eskolako liburuak eta materiala.
- Etxeko altzariak eta oinarrizko etxetresna elektrikoak (linea zuria).
- Xedetzat duen generora aldatzeko prozesuarekin lotutako gastuak.

Denbora-irizpidea: duela 6 hilabete hasi eta ebaluazio hau egin arteko aldia.

Oinarrizko ondasunak eta zerbitzuak ordain ditzake.

Gizabanakoak edo bizikidetzak unitateak diru-sarrerara nahikoa du oinarrizko ondasunak eta zerbitzuak arrunki ordaintzeko, bai eta oinarrizkoak ez direnak ordaintzeko ere, hala badagokio.

Ordaintzeko zailtasunak:

Zailtasunak ditu bere baliabideen bidez mota bateko eta besteko gastuak ordaintzeko.

Oinarrizko ondasunetan eta zerbitzuetan eginiko gastuak murrizten ditu.

Adierazle honen irizpide orokorrean adierazitako oinarrizko gastu batzuk murrizten ditu.

Ordainketa-atzerapenak eta zorrak.

Ezin ditu ondasun horiek garaiz ordaindu, eta zorpetu egiten da.

Ezohiko eta ustekabeko gastuak ordaintzeko zailtasunak.

Ezin ditu horrelako gastuak ordaindu.

Ezin ditu gastuak ordaindu:

Zailtasun larriak eta orokorrak ditu.

- Ezin ditu oinarrizko premiak ase.**
- Zorduntzea. Ondasunak galtzea.**

- Ezin ditu ezohiko eta ustekabeko gastuak ordaindu.**

1.7. adierazlea.- Oinarrizkoak ez diren ondasunetan eta zerbitzuetan eginiko gastuak.

Zer gastu motaz ari garen jakiteko, ikus aurreko adierazleko zerrenda eta azalpenak.

- Ez du zailtasunik oinarrizkoak ez diren ondasunak eta zerbitzuak ordaintzeko.**
 - Ordain ditzake.**
 - Mugatu egiten ditu, oinarrizko gastuak ordaintzeko.**
Ahal duenean ordaintzen ditu, oinarrizko ondasunei eta zerbitzuei kalterik egin gabe.
 - Ez ditu baliatzen, ezin baititu ordaindu.**
- Zailtasunik ditu oinarrizkoak ez diren gastuak ordaintzeko.**
 - Oinarrizko gastu batzuk murrizten ditu, oinarrizkoak ez diren gastuak ordaintzeko.**
Uko egiten die oinarrizko ondasun eta zerbitzu batzuei, oinarrizkoak ez diren gastuak ordaintzeko.
 - Zorpetu egiten da, oinarrizkoak ez diren gastuak ordaintzeko.**
Oinarrizkoak ez diren ondasunak ordaintzeko sortzen dituen zorrak ezin ditu kitatu.
- Oinarrizkoak ez diren gastuek eragindako arazoak:**
 - Oinarrizko gastuak murrizten ditu, oinarrizkoak ez diren gastuak ordaintzeko.**
Oinarrizkoak ez diren gastuak direla eta, ezin ditu ordaindu etxebizitzako gastuak, ez eta janari-, arropa- eta higiene-gastuak eta gastu pertsonalak ere.
 - Laguntzak jasotzeko eskubidea edo etxebizitza galdu du, oinarrizkoak ez diren gastuen ondorioz.**
Oinarrizkoak ez diren gastuak direla eta, etxebizitza edo laguntzak jasotzeko eskubidea galdu du, eta, horren ondorioz, gerta daiteke prozesu judizial bati ekitea.

2. ALDERDIA.- OKUPAZIO- ETA LAN-EGOERA.

2.1. adierazlea.- Okupazio- eta lan-egoera.

IRIZPIDE OROKORRA:

Lan-jarduerari dagokionez, gizabanakoaren egoera zein den adierazi behar da. Aukera egokia egin aurretik, garrantzitsua da adierazlearen aukerak aztertzea. Esate baterako, demagun norbait lanean ari dela. Lehenengo aukera —arazorik gabeko egoera— markatu aurretik, komeni da aztertzea ea lan-baldintzak bigarren aukerari dagozkion —egoera eskasa—.

- Ez du arazorik arlo horretan, edo ez da zertan aztertu. Balizko egoerak:**
 - Lanean ari da.**
16-66 urte ditu, egoera aktiboan dago, eta okupazio erregular bat du. Halaber, erabateko lan-erregulartasuna duen pentsiodun bat izan daiteke, baina okupazio bat duena, edo 66 urtetik gorako gizabanako bat, lan-jardueraren bat egiten duena.

- 16 urtetik beherakoa da, eta hezkuntza-sisteman dago.**
- 16 urtetik gorako ikaslea da.**
- Pentsioduna da, edo lan-adina gainditu du.**
Ekarpenezko pentsioa edo ekarpenezko ez den pentsioa duen pentsioduna.
- Kapital-sarrerak jasotzen ditu.**
Sarrerak jasotzen ditu ondasun higigarrietatik eta higiezinetatik.
- Etxea, seme-alabak edo beste pertsona batzuk zaintzen ditu.**
Arazorik ez duela adierazten badugu, izan dadila zinez arazorik ez duelako: hau da, lan egiteko aukerarik ez duelako aritzen bada etxea, seme-alabak edo beste pertsona batzuk zaintzen, hurrengo aukeretako batean adierazi behar dugu. Gizabanakoak berak aukeratu badu hori egitea, hemen adierazi behar dugu.
- Egoera eskasa:**
 - Langabea: lanean aritua.**
16-66 urte ditu: lan egiteko prest dago eta lan-mundura sartzeko kudeaketak egiten ari da.
 - Langabea: ez du inoiz lan egin.**
Ez du inolako lan-esperientziarik.
 - Ezkutuko lan-jardueretan aritzen da.**
16-66 urte ditu: modu irregularrean aritzen da lan-merkatuan lanean, ez ditu zergak ordaintzen eta ez du Gizarte Segurantzza kotizatzen, eta, horren ondorioz, ez du gizarte-prestaziorik.
- Egoera larria:**
 - Gutiz legezkoak ez diren edo legez kanpokoak diren lan-jardueretan aritzen da.**
Ezarritako zerga- eta lan-araudia batere betetzen ez duten lan-jardueretan aritzen da. Gerta daiteke lan-jarduera horiek lan baztertuekin edo delituzko ekonomia-jarduerekin lotuta egotea.
 - Lanean aritzeko adina du (16-65 urte), baina ez du lan egiteko aukerarik.**
Ez du lan egiteko aukerarik eta ez du ezertxo ere egiten lana aurkitzeko. Lan egiteko aukerarik zergatik ez duen azaldu beharko dugu beste adierazleetan.
 - 16 urtetik beherakoa da, eta lanean ari da.**
16 urtetik beherakoa da; ez du ekonomia-jarduerak egiteko adina, beraz. Kasuak banan-banan aztertu behar dira, lan-esplotazioa gertatzen den ikusteko.

2.A. ALDERDIA.- OKUPAZIO- ETA LAN-EGOERA.

2.A.1. adierazlea.- Lan-jarduera.

- Lanean ari da.**
 - Besteren kontura.**
Lanean ari da, eta lan-kontratu bat du, edozein motatakoa.
 - Besteren kontura, lan babestu batean.**
Produktibitatearen beherakadak, lanaren kostu osagarriak edo establezimendu-kostuak eta lana mantentzeko kostuak konpentsatzea xede duten erregulazio berezien babespean dago.
 - Bere kontura.**

Autonomoa, enpresaria edo kooperatibista da. Egoera araupetuta dago, eta dagokion akreditazio-agiria du [Gizarte Segurantzako langile autonomoen erregimen berezian alta eman du; Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (EJZ) alta eman du].

□ Ezkutuko lan-jarduera.

□ Besteren kontura, kontraturik gabe.

Besteren kontura egiten du lan, baina ez du zergarik ordaintzen eta ez du Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean kotizatzen, ez eta besteren konturako lanari dagokion beste erregimen berezietan ere (etxeko langileak, nekazariak...).

□ Bere kontura, legeztatu gabe.

Bere kontura egiten du lan, baina ez du alta eman langile autonomoen erregimen berezian, ez eta EJZn ere.

□ Ezkutuko lan-jarduera, guztiz legezkoa ez dena edo legez kanpoko.

□ Guztiz legezkoa ez den ezkutuko okupazioa.

Bazterkeriarekin lotutako okupazioren bat du: guztiz legezkoa ez den ezkutuko okupazioren bat, gizartean onartutako ereduetatik at: prostituzioa, eskean aritzea...

□ Legez kanpoko ezkutuko okupazioa.

Delituzko ekonomia-jarduera batean aritzen da: lapurretan, txikizkako salerosketan, kontrabandoan, droga-trafikoan...

2.A.2. adierazlea.- Lan-baldintzak.

□ Egokiak.

Arauaren araberako ordutegia, bereizkeriarik gabeko ordainsaria eta premiak asetzeko adinako zenbatekoak, segurtasuna lan-postuan, lan-eskubideak.

□ Txarrak: ezegonkortasuna.

Kontraturik eza, lan-bereizkeria, premiak asetzen ez dituzten soldatak, istripuak eta laneko gaixotasunak eragin ditzaketen lan arriskutsuak, etengabeko lanpostu-aldaketa, enpresa-bitartekarien azpikontratazioa, lan-eskubide prekarioak, mailaz igotzeko aukera gutxi. (Subirats, 2005)

□ Oso txarrak: lan-esplotazioa.

Gehiegizko ordutegiak, oso soldata txarra, oso lan-baldintza txarrak, lan-eskubide eza. Hala badagokio, 16 urtetik beherako adingabeak.

2.A.3. adierazlea.- Lan-egonkortasuna.

□ Lan egonkorra.

Urtebetetik gorako kontratua. Hasiera batean, lan egonkorra eta segurua.

□ Lan ezegonkorra.

Lan etena, aldi baterako lana edo aldi baterako aldizkako lana: sasoikako langileak, ondoz ondoko kontratu motzak (hiru hilabetetik beherakoak). Kontratuak eta lan egiteko lekua maiz edo etengabe aldatzen dira. Asteburuko lana izan daiteke, edo ekitaldi jakin batzuetan egiten dena.

□ Noizbehinkako lana.

Gutxitan eta elkarrengandik aski bereizitako denbora-tarteetan eginiko noizbehinkako lana.

2.A.4. adierazlea.- Lanaldi-mota.

Bizitzeko adina sarrera bermatzen ez dituzten lanbideak identifikatzea da helburua.

Lanaldi osoa edo partziala (borondatezkoa).

Asteko edo hileko lanaldi osoa —sektore bakoitzean ezarritako gehienezko ordu-kopurua— edo partziala (borondatezkoa) edo lanaldi murriztua (lana eta familia uztartzeko edo osasun-arrazoiengatik).

Lanaldi murriztua, lana eta familia-bizitza uztartzeko edo osasun-arrazoiengatik.

Egoera jakin batzuk direla tarteko, ezin du lanaldi osoa egin. Horregatik, lanaldi partziala egitea erabaki du, nahiz eta, haren ekonomia-egoera ikusita, lanaldia osoa egin beharko lukeen.

Lanaldi partziala.

Beti ere, berak hartutako erabaki bat ez bada eta ekonomia-egonkortasunari eragin badiezaioke. Berez, ordu gehiago lan egin nahi du, eta horretarako prest dago.

2.B. ALDERDIA.- LANGABEZIA-EGOERA.

2.B.1. adierazlea.- Lan-bilaketa: egoera.

Langabea: modu aktiboan ari da lan bila.

Herritar aktibotzat hartzen da. Markatu aukera hau, baldin eta modu aktiboan ari bada lan bila.

Lehenengo aldiz lan bila.

Lehenengo aldiz ari da lan bila.

Urtebete baino gutxiagoz geroztik langabe.

Urtebete baino gehiagoz geroztik langabe.

Langabea: modu pasiboan ari da lan bila.

Ezin du lan egin gaixo dagoelako —Gizarte Segurantzak ez dio aitortu gaixo dagoela— edo erantzukizun saihestezinak dituelako.

Arrazoi hauek direla eta, ez da lan bila ari: uste du ez duela lanik aurkituko, ez baitu inoiz lanik bilatu; uste du bere inguruan ez dagoela beretzako moduko lanik; uste du ez dagoela bere prestakuntzara egokitzen den lanik; edo ez daki nora jo lana bilatzeko.

Ezintasuna dela eta.

Adina, gaixotasuna edo desgaitasuna dela eta, pentsioa jaso lezake, baina ez ditu eskakizun guztiak betetzen. Hori dela eta, bazter utzi du lan-merkatua. Adierazle hau funtsezkoa da datuak biltzeko; hau da, gaixotasunen bat edo desgaitasunen bat izan arren, ezintasun iraunkorra eta horrek dakarren laguntza jasotzeko eskubidea ez duten kasuen datuak biltzeko.

Albo batera utzi ezin dituen familia-erantzukizunak direla eta.

Ezin du lan egin, albo batera utzi ezin dituen erantzukizunak dituelako (pertsonak zaintzen ditu eta laguntza informala ematen du).

Beste batzuk.

□ **Lana bilatzeari uko egiten dion langabea.**

□ **Ezintasuna dela eta.**

Gizarte-gaitasunen eta -abilezien gainbehera: bizi-dinamismoak, motibazioa galtzea, itxaropen gutxi edo batere ez; buruko arazoak edo/eta droga-mendetasuna... Harreman-baliabideen gainbehera (bakartze soziala, lotura afektiboak) edo/eta bizitzeko baliabiderik eza, batez ere, ostatzeko baliabiderik eza (kalean bizi da, ez du ostatalekurik).

□ **Borondatezko langabezia.**

Edozein arrazoi dela eta, langabezia dago, berak hala erabakita.

□ **Beste batzuk.**

2.B.2. adierazlea.- Langabeak: profilak eta lan-merkatuaren eskaria.

□ **Lan-merkatuan, profil hori duten gizabanakoak eskatzen dira.**

Langabea da, baina, lan-merkatuan, bere profila (pertsonea, lanekoa edo profesionala) duten gizabanakoak eskatzen dira.

□ **Lan-merkatuan, gutxitan eskatzen dira profil hori duten gizabanakoak.**

Langabea da, eta bere profila ezegokitzat jotzen da lan-merkatuan sartzeko.

□ **45 urtetik gorakoak.**

Adina dela eta, zailtasunak ditu lan-merkatuan sartzeko, haren prestakuntza edonolako dela ere. Kontratazioa sustatzeko politika publikoen pizgarriak behar dituzte.

□ **Inguruabar bereziak: arraza, kultura, ezaugarriak, transexualitatea.**

Prestakuntza egokia du, baina lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboetako bateko kide da.

□ **Lan-merkatuan eskatzen ez diren profilak dituzten gizabanakoak.**

Langabea da, eta lan-merkatuak —formalak, informalak eta ezkutukoak— haren profila baztertzen du.

□ **Askatasun-gabetzea, delitugintza, droga-mendetasuna eta halakoak bizi izan ditu.**

Jokabide asozialak eta delituzkoak izan ditu, eta, horren ondorioz, lan-merkatuak haren profila baztertzen du.

□ **Desgaitasuna (mugikortasun murriztua, komunikatzeko arazoak, etab.).**

Arazo fisikoak, sentzorialak edo mentalak ditu, eta, horren ondorioz, baztertu egiten dute.

□ **Ez du behar adina prestakuntza.**

Zerikusia du prestakuntza-premien aldaketekin eta merkatuak eskatzen duen birziklatze profesionalarekin, bai eta kolektibo batzuen analfabetismo digitalarekin eta teknologikoarekin ere (Subirats, 2005).

□ **Ez du lan-baimenik.**

3. ALDERDIA.- EGOITZA-EGOERA.

3.1. adierazlea.- Errolda.

- Zer udalerritan bizi den, gizabanakoa han dago erroldatuta:**
 - Lurralde historikoko beste udalerrri batean dago erroldatuta.
 - EAeko beste udalerrri batean dago erroldatuta.
 - Beste autonomia-erkidego bateko udalerrri batean dago erroldatuta.
- Erroldatzeko zailtasunak / Itxurazko erroldatzea.**
 - Izapideak egiten ari da, eta aukera handiak ditu lortzeko.**
Etxebizitza partikular batean edo beste pertsona edo bizikidetz-unitate batzuekin partekatutako etxebizitza batean, edo etxebizitza kolektibo batean.
 - Establezimendu kolektibo batean dago erroldatuta.**
Ezin da etxebizitza partikular edo kolektibo batean erroldatu. Establezimendu instituzional batean edo gizarte-baliabide informaletan dago erroldatuta.
- Ez dago erroldatuta.**
 - Garai batean erroldatuta zegoen. Orain ez du errolda-agiririk.**
Garai batean erroldatuta zegoen, baina ez du bizileku-baimen iraunkorra berritu.
 - Errolda-eskaera ezetsi egingo da, ziur asko.**
Ziur asko, ezingo da erroldatu, ez baititu eskakizun guztiak betetzen: ezin du nortasuna frogatu edo ezin du agiririk lortu, etxebizitza edo establezimendu kolektiboa erabiltzen duela frogatzen duenik.
 - Errolda-eskaera ezetsi egin da.**

3.1. adierazlea.- Erroldatze-epea.

Honen bidez jakingo dugu, hain zuzen ere, gizarte-babeserako sistemen prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko —betiere, beste eskakizun batzuk betetzen baditu— eta atzerritarren bertakotzea egiaztatzeko bete beharreko errolda gabeko epeak betetzen dituen ala ez. Hona hemen epeei buruzko informazioa, eskema moduan:

Gizarte-babeserako sistema publikoen prestazioak eta zerbitzuak	Erroldatze-epea udalerrri berean	Erroldatze-epea EAeko beste udalerrri batean	Erroldatze-epea beste edozein autonomia-erkidegotan
Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko errenta	Urtebete	Urtebete, 3 urte edo 5 urte lan-jarduera ordaindua	
Gizarte-larrialdietarako laguntzak	6 hilabete	6 hilabete edo azken 10 urteetako 5 urte	
Gizarte-zerbitzuen euskal sistema		Urtebete (bizileku-baimenik gabe)	
Mendetasunari buruzko legean jasotako laguntza ekonomikoak			5 urte
Ekarpenezko ez den erretiro-pentsioa			10 urte
Ekarpenezko ez den ezintasun-pentsioa			5 urte

Bertakoa dela egiaztatzea			Orokorra: 3 urte Lanekoa: 2 urte Soziala: 3 urte
---------------------------	--	--	--

- 10 urte.**
- 5 urte.**
- 3 urte.**
- 2 urte.**
- Urtebete.**
- 6 hilabete.**
- Sei hilabete baino gutxiago.**

3.2. adierazlea.- Atzerritarrak: bizileku-baimena.

- Bizileku-baimena du. Mota:** (ikus zerrenda, behean)
- Bizileku-baimenaren eskaera bideratzen ari dira, eta aukera handiak ditu lortzeko. Mota:** (ikus zerrenda)
- Ez du bizileku-baimenik.**
 - Oraindik ez du eskatu: zain dago eskakizunak noiz beteko dituen edo jatorrizko herrialdeko agiriak noiz bilduko dituen.
 - Bizileku-baimenaren eskaera ezetsi egin dute. Mota: (ikus zerrenda)

BIZILEKU-BAIMEN MOTAK

- Aldi baterako baimena.**
Hainbat motatako aldi baterako baimenak: familia berriro biltzeko baimena, hainbat lan mota...
- Inguruabar bereziak:**
 - lan-sustraitzea
 - gizarte-sustraitzea
 - familia-bertakotzea
 - nazioartearen babesak
 - arrazoi humanitarioak
 - autoritateekiko lankidetzak
 - nazio-segurtasuna
 - herri-interesa
 - genero-indarkeria
 - sare antolatuen aurkako lankidetzak
 - giza salerosketaren biktima diren atzerritarrak
 - bizileku-baimenik ez duen atzerritar adingabea, bakarrik etorri dena
- Bizileku-baimena izateko edo emateko beste inguruabar batzuk:**
 - Lehenengo berritzea
 - Bigarren berritzea
 - Iraupen luzekoa
 - Iraupen luzekoa (EB)
 - Aldi baterako baimena, EBko herritar baten senide gisa
 - Behin betiko baimena, EBko herritar baten senide gisa
- Mendetasunaren arabera:**
Ea bizileku-baimenaren titularra den, edo ea beste norbaiten beharra duen edo izan duen baimena lortzeko:
 - Independentea
 - Familia-berrelkartzearen ondoriozko bizileku-baimena

- Espainiako herritar baten semea edo alaba, Espainiatik kanpo jaioa
- Espainiako herritar baten semea edo alaba, Espainian jaioa
- Adingabe atzerritarra, bakarrik etorritakoa
- Egonaldi-baimen mota:**
 - Iraupen laburreko egonaldi-baimena
 - Egonaldi-baimena: ikasketak, ikasleen mugikortasuna, lanekoak ez diren praktikak edo boluntario-zerbitzuak direla eta.

3.3. adierazlea.- Atzerritarrak eta lan-baimena.

- Lan-baimena du. Mota:** (ikus zerrenda, behean)
- Lan-baimenaren eskaera bideratzen ari dira, eta aukera handiak ditu lortzeko. Mota:** (ikus zerrenda)
- Ez du lan-baimenik.**
 - Oraindik ez du eskatu: zain dago eskakizunak noiz beteko dituen edo agiriak noiz bilduko dituen.
 - Lan-baimenaren eskaera ezetsi egin dute. Mota: (ikus zerrenda)

LAN-BAIMEN MOTAK:

- besteren kontura lan egiteko aldi baterako baimena
- bere kontura lan egiteko baimena
- ikerketa egiteko aldi baterako baimena
- prestakuntza handiko profesionalak, EBko txartel urdina dutenak
- besteren kontura lan egiteko iraupen jakineko baimena
- nazioz gaindiko zerbitzuak emateko baimena
- lan-baimena salbuetsirik
- ez du lan-baimenik

3.4. adierazlea.- Atzerritar txartela edo bisa.

Egonaldia legezkoa dela egiaztatzeko balio du. Indarrean dauden araudiak oinarri hartuta, legezko egoeran dauden atzerritarrei soilik emango zaie atzerritar txartela edo bisa, atzerritartasunari edo asiloari buruzko araubide orokorraren arabera edo autonomia-erkidegoko araubide orokorraren arabera.

Bisa edo sei hiletik gorako bizileku-baimena jaso dutenek txartel hori eskatu behar dute, baimen hori berritzen dutenean, txartelean jasotako egoeraren bat edo daturen bat aldatzean denean, txartela lapurtzen dietenean edo txartela galtzen edo hausten zaienean edo erabiltzen ez dutenean.

- Txartela indarrean du.**
- Txartela iraungita du.**
- Ez du txartelik.**
 - Galdua, lapurtua edo erabili gabea.
 - Ez ditu eskakizunak betetzen.

**ZUZENBIDE- ETA ADMINISTRAZIO-EGOERA: ekonomia-, lan- eta egoitzar-
arloan.**

T.1. adierazlea.- Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoak.

Gizarte Segurantzaren prestazioren bat jasotzen duen jakin nahi dugu. Prestazio horren ezaugarriak beste adierazle batzuetan jasoko ditugu. Oro har, prestazio huez ari gara:

- o Langabezia (prestazioa eta sorospena).
- o Ekarpenezko erretiro-pentsioa.
- o Ekarpenezko ez den erretiro-pentsioa.
- o Biziraute-prestazioak (alarguntza, zurtasuna, edo ahaideen alde).
- o Aldi baterako ezintasuna.
- o Ezintasun iraunkorra (partziala, osoa, erabatekoa eta baliaezintasun handia).
- o Baliaezintasuna: ekarpenezko ez den aldaera.
- o Semeagatiko edo alabagatiko prestazioa.

Onuraduna da, edo ez ditu prestazio horiek behar.

Ez da onuraduna, baina izan daiteke:

- Izapideak egiten ari dira, eta aukera handiak ditu onuradun izateko.
- Eskakizunak betetzen ditu, eta, eskatuz gero, onuradun izan daiteke.
- Prestazioa eten egin da.

Ez da onuraduna:

- Ez ditu eskakizunak betetzen.
- Izapideak egiten ari dira, baina, ziur asko, eskaera ezetsi egingo dute.

T.2. adierazlea.- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta.

Adierazi ea azterketa egiten den unean Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duen, bai eta eskakizunak betetzen dituen ere.

Onuraduna da, edo ez du halakorik behar.

Ez da onuraduna, baina izan daiteke.

- Izapideak egiten ari dira, eta aukera handiak ditu onuradun izateko. Nahitaetzko agiriak biltzen ari da.
- Eskakizunak betetzen ditu, eta, eskatuz gero, onuradun izan daiteke.
- Prestazioa eten egin da.

Ez da onuraduna:

- Ez ditu eskakizunak betetzen.
- Izapideak egiten ari dira, baina, ziur asko, eskaera ezetsi egingo dute.

T.3. adierazlea.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko eskakizunak.

Adierazi ea azterketa egiten den unean eskakizun horiek betetzen dituen edo aurki bete ditzakeela uste dugun, baldin eta sistema horren beharra duela iruditzen bazaigu.

Onuraduna da; eskakizunak betetzen ditu.

EAEko udalerrri batean erroldatuta dago, eta bertan du legezko eta benetako bizilekua.

Eskakizun batzuk betetzen ditu, edo aurki beteko ditu eskakizun guztiak:

- Ezin ditu prestazio eta zerbitzu guztiak jaso.
- Zain dago erroldatze-aldia noiz beteko duen.

Egiaztatu du sistema horretara sartzeko eskaera egin aurreko 12 hilabeteetan jarraian EAEko udalerrri batean erroldatuta egon dela eta bertan benetako bizilekua izan duela.

Ez ditu eskakizunak betetzen. Larrialdi-egoeretan soilik jaso ditzake zerbitzu eta prestazio horiek.

Ez ditu betetzen Gizarte Zerbitzuen Legeak 3. artikuluan ezarritako eskakizunak: "Euskal Autonomia Erkidegoan dauden pertsonak, gehienez ere, informazio-, ebaluazio-, diagnosi- eta orientazio-zerbitzuak jaso ahal izango dituzte, bai eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen eta zerbitzuen katalogoan gizarte-premiazat hartzen diren zerbitzuak eta prestazioak ere.

T.4. adierazlea.- Doako justizia. Helburua da pertsona orori justiziara jotzeko aukera ematea —berdintasun-baldintzetan, noski—, bai eta baliabide gabeziak eragiten duen bereizkeria ezabatzea ere. Justiziaz baliatu ahal izango dira legezko bizilekua duten bertako nahiz atzerriko herritarrak eta legezko bizilekurik ez duten atzeritarrak (azken horiek baliabide nahikoa ez dutela frogatu beharko dute zigor-arloko prozesuetan, asilo-eskaerei lotutako prozesuetan eta Espainiara sartzeko, jatorrizko herrialdera itzularazteko eta Espainiatik kanporatzeko prozedura administratiboetan eta judizialean).

Irizpidea: T.4 adierazlea aintzat hartuko dugu, baldin eta hauetakoren bat dela-eta laguntza juridikoa behar badu:

- o Zigor-arloko jurisdikzio-ordena: zigor-arloko txanda orokorra, espetxea, adingabeak, epaimahaia eta konstituzionala.
- o Arlo zibileko jurisdikzio-ordena: txanda zibil orokorra, familia, adingabeak eta konstituzionala.
- o Administrazio-arloko jurisdikzio-ordena: txanda administratibo orokorra, errefuxiatuak, atzeritartasuna eta konstituzionala.
- o Gizarte-arloko jurisdikzio-ordena: txanda sozial orokorra eta konstituzionala.
- o Genero-indarkeria: zigor- eta familia-arloko eta arlo zibileko jurisdikzio-ordenak eta genero-indarkeria, zentzu hertsian.
- o Zigor-arloko jurisdikzio-ordena: letraduak atxilotuari ematen dion laguntza.

Eskubide hori du.

Ez da onuraduna, baina izan daiteke:

- Izapideak egiten ari dira, eta aukera handiak ditu onuradun izateko.
- Eskakizunak betetzen ditu, eta, eskatuz gero, onuradun izan daiteke.

Ez da onuraduna:

- Ez ditu eskakizunak betetzen.
- Izapideak egiten ari dira, baina, ziur asko, eskaera ezetsi egingo dute.

Ez dagokio.